BILBOKO UDALAREN EUSKARAKO, HERRITARREN ARRETA ETA PARTAIDETZAKO, 2030 AGENDAKO ETA NAZIOARTEKO GAIETAKO SAILAREN ETA KUKULAISI EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA FEDERAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA, DIRULAGUNTZA IZENDUNA BIDERATZEKO

CONVENIO ENTRE EL ÁREA DE EUSKERA, ATENCIÓN Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA, AGENDA 2030 E INTERNACIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y KUKULAISI EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA FEDERAZIOA, POR EL QUE SE CANALIZA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA

Bilbon, 2026ko urria

Bilbao, octubre de 2026

BERTARATUAK

Alde batetik, Eider Inuntziaga Serna andrea, Bilboko Udaleko Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Saileko Zinegotzi ordezkaria (NAN: *********).

Beste aldetik, Naiara Martín Gomez, ********* NAN zenbakiduna, Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioaren presidentea, helbidea: Izarra Centre-Zearkale, 36, 8, 6. Bulegoa, 48260 Ermua, Bizkaia (IFK: G67853655).

Alde biek ahalmen osoa onartu diote elkarri Hitzarmenak sinatzeko eta betebeharrak hartzeko, eta horretarako hauxe

ADIERAZTEN DUTE

Bilboko Udaleko Euskarako Zuzendaritzaren misioa da euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea hiriko espazio guztietan, bilbotarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen presentzia indartzeko. Horretarako tresna du Bilboko AROA Plan Estrategikoa 2025-2035.

REUNIDOS

De una parte, Eider Inuntziaga Serna, Concejala Delegada del Área de Euskera, Atención y Participación Ciudadana, Agenda 2030 e Internacional del Ayuntamiento de Bilbao con DNI *********.

Por la otra parte, Naiara Martín Gomez, con DNI *********, presidenta de Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa, asociación que tiene su domicilio en Izarra Centre-Zearkale, 36, 8, oficina 6, 48260 Ermua, Bizkaia (CIF: G67853655).

Ambas partes se han reconocido plena capacidad para firmar Convenios y obligarse, y para ello

EXPONEN

La misión de la Dirección de Euskera del Ayuntamiento de Bilbao es normalizar y fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la ciudad, con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía bilbaína y fortalecer la presencia del euskera. Para ello, cuenta con el Plan Estratégico AROA de Bilbao 2025-2035.

AROA Plan Estrategikoaren xedea da Bilbon euskara indarberritzea eta bere erabilera areagotzea eta 2025-2035 epealdirako diseinatutako plan honek Bilboko Udalaren hizkuntza-politikaren norabidea markatzen du, 10 urterako ikuspegi batean oinarrituta. Planak jasotzen dituen ardatz, erronka, lan-ildo eta ekintzen bidez, euskararen ezagutza, erabilera, motibazioa eta prestigioa sendotzea bilatzen da.

Ildo beretik, aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan euskararen eskaintza zein erabilera bermatzeko ekimenak areagotzeko beharrizana dauka Udalak, Udalerria arian-arian euskalduntzeko prozesuan.

Beharrizan hori betetzera dator "*Entrenatzen*" izeneko programa hau, Eusko Jaurlaritzak 2023tik bultzatu duena, Kukulaisi elkartearen laguntzarekin. Elkartea 2021eko irailean sortu zen aisialdian diharduten 15 elkarteren eta Euskaltzaleen Topagunearen kidetzarekin. Bere lan eremu nagusiak eremu formaletik kanpo garatzen diren kirol, aisialdi eta kultur arloak dira.

"Entrenatzen" egitasmoari sorrera Berbaizu euskara elkarteak eman zion eta honako helburu nagusi hau izan du urte guzti hauetan: kirol guneetan eta eskola-orduz kanpoko kirolean euskaraz ahozko gaitasuna hobetzea da eta, ondorioz, euskararen erabilera areagotzea. Horrez gain, beste azpi-helburu batzuk ere bete nahi ditu proiektu honek:

- Gazteen ahozkotasuna hobetzen laguntzea, hizkuntza gaitasunak gustuko duten ekintza erreal batean praktikan jarriz.
- Kirolean hasi berriak direnak euskaraz egiteko aukera eta ohitura edukitzeko zuzendaritza, guraso elkarte, entrenatzaile eta gurasoak sentsibilizatzea.
- Gazteen euskararekiko pertzepzioan, erabileran eta ahozkotasunean eragitea.

El Plan Estratégico AROA tiene como objetivo la revitalización del euskera en Bilbao y la intensificación de su uso. Este plan, diseñado para el período 2025-2035, marca el rumbo de la política lingüística municipal con una visión a diez años. A través de sus ejes, retos, líneas de trabajo y acciones, se persigue consolidar el conocimiento, el uso, la motivación y el prestigio del euskera.

En este sentido, el Ayuntamiento tiene la obligación de intensificar las iniciativas garantizar y la oferta y uso del euskera en los ámbitos del ocio organizado y deportivo, dentro del proceso de euskaldunización progresiva del municipio.

Este programa denominado "*Entrenatzen*", e impulsado por el Gobierno Vasco desde 2023 con la colaboración de la asociación Kukulaisi, viene a cubrir esta necesidad. La asociación nació en septiembre de 2021 con la participación de 15 asociaciones dedicadas al tiempo libre y de Euskaltzaleen Topagunea. Sus principales ámbitos de trabajo son los deportivos, de ocio y culturales que se desarrollan fuera del ámbito formal.

El proyecto "Entrenatzen" fue creado por la asociación de euskera Berbaizu y su principal objetivo durante todos estos años ha sido el siguiente: mejorar la competencia oral en euskera en los espacios deportivos y en el deporte extraescolar y, en consecuencia, aumentar el uso del euskera. Además, este proyecto pretende cumplir otros sub-objetivos:

- Contribuir a mejorar la oralidad de los jóvenes poniendo en práctica las competencias lingüísticas en una acción real que les guste.
- Sensibilizar a la dirección, asociaciones de padres y madres, entrenadores y entrenadoras y padres y madres para que tengan la oportunidad y el hábito de practicar el euskera.

- Incidir en la percepción, uso y oralidad de la juventud hacia el euskera.

Egitasmoa Deustuko barrutian nagusiki gauzatuko den arren, Bilboko beste kirol elkarte gutxi batzuetara ere zabalduko da, honakoetan hain zuzen ere:

- Kirol elkarteak: Deustu S.D, Deustuko Arraun Taldea, Ibarreko F.T, Indar Saski eta Bilbao Basket eskola.
- Ikastetxeak: Intxixu ikastola, Deustuko ikastola, Abusu ikastola.

Aunque el proyecto se desarrollará principalmente en el distrito de Deusto, también se extenderá a otras pocas asociaciones deportivas de Bilbao, como son:

- Clubes deportivos: S.D. Deusto, Club de Remo de Deusto, Ibarreko F.T, Indar Saski y Bilbao Basket eskola.
- Centros escolares: Intxixu ikastola, Deustu Ikastola, Abusu Ikastola.

Adinari dagokionez, 8 eta 12 urtera bitarteko haur eta gazteak izango dira pilotaje honen hartzaileak.

En cuanto a la edad, los niños y jóvenes de entre 8 y 12 años serán los destinatarios de este pilotaje.

Horiek horrela, egokitzat jo da *"Entrenatzen"* egitasmoa, aipatutako helburuak lortze aldera, euskararen erabilera kirol arloan bultzatu eta hizkuntzaren aldeko jokabideak indartzeko.

Por todo ello, se ha considerado adecuado el proyecto *"Entrenatzen",* con el fin de lograr los objetivos mencionados, para impulsar el uso del euskera en el ámbito deportivo y reforzar las conductas a favor de la lengua.

ADOSTEN DUTE

Azaldutakoa ikusita, hitzarmen hau formalizatzea erabaki dute, baldintza hauekin:

ACUERDAN

Que a la vista de todo lo expuesto acuerdan formalizar el presente convenio conforme a las siguientes

BALDINTZAT

BAT.- Hitzarmenaren zertarakoa

Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioari emango zaion dirulaguntza kirol arloan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko da, udalaren aurrekontuko aurreikuspenarekin bat etorrita.

Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioak 1. eranskinean azaldutako programa gauzatuko du, 2. eranskinean zehaztutako aurrekontuarekin. Hitzarmen honen barrukoak dira eranskin bi-biak.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto del Convenio

La subvención que se concede a Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa tiene como objeto promocionar el conocimiento y el uso del euskera en en ámbito deportivo, de acuerdo con la previsión del presupuesto municipal.

Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa desarrollará el Programa que se concreta en el Anexo 1 y según el Presupuesto determinado en el Anexo 2. Ambos Anexos forman parte del presente Convenio.

BI.- Izaera eta erregimen juridikoa

Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko du hitzarmena. Lege horren 22.2.a) artikuluarekin bat etorrita arautzen du hitzarmenak zuzeneko dirulaguntza. Bilboko Udalaren 2026ko aurrekontuetan izendun bezala dago jasota, dirulaguntza izendunen atalean. Hor, besteak beste, hauxe agertzen da:

PEP: 2026/00444
PEParen izena: Entrenatzen Proiektua
Helburua: "*Entrenatzen*" proiektuaren 3. Edizioa.
Onuraduna: G67853655- Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa
Organikoa: 13010
Funtzionala: 33510
Ekonomikoa: 4819970
Zenbatekoa: 10.000,00 €

HIRU.- Burutzeko epea

Hitzarmen honek 2026ko abenduaren 31ra arteko indarraldia du eta 2026ko urtarrilaren 1ean hasitako atzeraeraginezko ondorioak.

LAU.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Hitzarmen honetan finkatutako dirulaguntza bateragarria izango da nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko organismoetako beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edota baliabideekin. Kasu horretan, Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailari jakinarazi beharko zaio. Aportazio guztien kopurua ezingo da izan diruz lagundutako jarduerak duen kostua baino handiagoa.

SEGUNDA.- Naturaleza y régimen jurídico

El presente Convenio se rige por las normas de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Se trata de un convenio que, de conformidad con el art. 22.2.a) de dicha Ley, regula la presente subvención directa, nominativamente prevista en los Presupuestos de 2026 del Ayuntamiento de Bilbao dentro del Anexo de Subvenciones Nominativas, entre las que se encuentra la siguiente:

PEP: 2026/00444
Denominación PEP: Entrenatzen Proiektua
Destino: 3ª edición del proyecto "*Entrenatzen*"
Beneficiario: G67853655- Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa
Orgánica: 13010
Funcional: 33510
Económica: 4819970
Importe: 10.000,00 €

TERCERA.- Plazo de ejecución

El presente Convenio tiene un período de vigencia hasta el 31 de diciembre de 2026, teniendo efectos retroactivos desde el día 1 de enero de 2026.

CUARTA.- Compatibilidad con otras subvenciones

La subvención concedida al amparo del presente convenio será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales. En cuyo caso, deberán comunicarlo al Área de Euskera, Atención y Participación Ciudadana, Agenda 2030 e Internacional. El conjunto de aportaciones no podrá superar el coste de la actividad

Handiagoa balitz, itzuli egin beharko litzateke kostu horretatik gorakoa.

subvencionada, en cuyo caso daría lugar al reintegro correspondiente.

BOST.- Diruz lagundutako jardueraren azpikontratazioa.

QUINTA.- Subcontratación de la actividad subvencionada

Diruz lagundutako jardueraren % 35 baino ezingo du azpikontratatu Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioak.

Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa únicamente podrá subcontratar un 35% de la actividad subvencionada.

Diruz lagundutako jarduerok osorik edo zati batean gauzatzeko, ezingo da inolaz ere itunik egin Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako debekuetako baten barruan dauden pertsonekin edo erakundeekin, dirulaguntzaren jasotzailearekin lotura duten pertsonekin edo erakundeekin (Arautegiaren 68.2 artikuluan dago zehaztuta zeintzuk diren loturak) eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7 artikuluan adierazitako gainerako pertsonekin.

En ningún caso, podrá concertarse la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art.13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con el beneficiario (considerándose que existe vinculación en los casos recogidos en el art. 68.2 del Reglamento), ni con las demás personas previstas en el art. 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

SEI.- Datuen babesa eta tratamendu-enkargua

SEXTA.- Protección de datos y encargo de tratamiento

Hitzarmen honen esparruan, eta (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 28. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Bilboko Udala tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, eta Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioak tratamenduaren enkargudun gisa, datu pertsonalak Udalaren kontura eta haren jarraibide dokumentatuen arabera soilik tratatuz.

En el marco del presente convenio y a los efectos de lo dispuesto en el artículo 28 del Reglamento (UE) 2016/679, el Ayuntamiento de Bilbao actuará como responsable del tratamiento, y Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa como encargada del tratamiento, tratando los datos personales únicamente por cuenta del Ayuntamiento y conforme a sus instrucciones documentadas.

Tratamendu-enkarguaren baldintza zehatzak hitzarmen honen dagokion eranskinean jasoko dira, eta eranskin hori hitzarmen honen parte integrala izango da.

Las condiciones específicas del encargo de tratamiento se recogerán en el anexo correspondiente al presente convenio, que formará parte integrante del mismo.

Halaber, tratamenduaren enkargudunak honako dokumentuak sinatu eta aurkeztu beharko ditu:

- Datu pertsonalen tratamendurako erantzukizunpeko adierazpena,
- Datu pertsonalen tratamenduaren eranskina,

Asimismo, el encargado del tratamiento deberá firmar y presentar los siguientes documentos:

- Declaración responsable para el tratamiento de datos personales.
- Anexo de tratamiento de datos personales.

- Zerbitzarien kokapenari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

ZAZPI.- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak aurkeztea

Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 13. artikuluan ezarritakoa betetzeko, Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioak Entrenatzen proiektuan parte hartzen duten bere langileen Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak aurkeztu ditu. Era berean, kontratu honen indarraldian langileak ordezkatuko badira, horien ziurtagiri negatiboak ere aurkeztuko dira. Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria Zigor-aurrekarien ziurtagiriarekin ordezkatu daiteke.

ZORTZI.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren zer-nolakoarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta hitzarmenaren indarraldian egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitekeen gastua Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa (15.000 euro, BEZ kanpo, zerbitzu eta hornidurarako) baino handiagoa denean, kontratatu aurretik, onuradunak zenbait hornitzaileren hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago holakorik egin, eskain edo horni dezakeen erakunde nahikorik edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

- Declaración responsable relativa a la ubicación de los servidores.

SÉPTIMA.- Entrega de certificaciones negativas del Registro Central de delincuentes sexuales.

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 13 de la Ley Orgánica de Protección Jurídica del Menor, Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa presenta las certificaciones negativas del Registro Central de delincuentes sexuales de su personal participante en el proyecto Entrenatzen. Asimismo, en caso de que durante la ejecución del contrato haya sustituciones, se presentarán igualmente estas certificaciones negativas. El certificado del Registro Central de delincuentes sexuales podrá ser sustituido por un Certificado de Antecedentes Penales.

OCTAVA.- Gastos subvencionables

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo de vigencia del Convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público para el contrato menor (15.000€ IVA excluido en el supuesto de suministro y servicios) el beneficiario deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores previamente a la contratación de los mismos, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

Justifikazioan edota dirulaguntzaren eskarian erantsi behar diren eskaintzen artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan. Ekonomia aldetik merkeena ez den eskaintza aukeratzen denean, aukeraketa hori berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

BEDERATZI.- Programa aldatzea

NOVENA.- Modificación del Programa

Programan edozein aldaketa garrantzitsu eginez gero, aldez aurretik Bilboko Udalari eskatu beharko zaio idatziz, eta hark eman beharko du baimena beren beregi.

Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao quien deberá expresamente autorizarla.

Aldaketa garrantzitsu bat egiteko eskabideak arrazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuko eta kronogramako ondorioak zehaztu beharko dira. Gobernu Batzordeak sail egokiaren ordezkaritzari eskuordetuko dio aldaketa horiek baimentzea.

Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

Horretarako, hauek joko dira aldaketa garrantzitsutzat:

- Helburu orokorretan edo/eta zehatzetan aldaketak egitea.
- Onartutako aurrekontuetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin izango dute zeharkako kostuetan eraginik eduki), ez badute programaren aurrekontu osoa gutxitzen.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzen badu, Gobernu Batzordeak onartu beharko du.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

HAMAR.- Pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntzari buruz egin behar duen publizitatea

DÉCIMA.- Publicidad de la subvención por parte de la persona o entidad beneficiaria

Entitate onuradunak udalaren finantziazioa jendaurrean azaldu beharko du eta Udalaren logotipoa agertu beharko du sortzen dituen

La entidad beneficiaria, deberá hacer pública esta financiación municipal incluyendo el logotipo del Ayuntamiento en los materiales impresos que

material inprimatuetan (kartelak, foiletoak, informazio-orriak…), oroigarrietan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetako iragarkietan.

genere (carteles, folletos, hojas informativas...), en las placas conmemorativas, en los medios electrónicos o audiovisuales o en los anuncios que pueda publicar en los medios de comunicación escrita.

Era berean, diruz lagundutako programaren edo jardueraren publizitatea egiteko elementu moduan erabiliko diren kartelak, testuak eta dokumentuak hizkuntza ofizial bietan, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, idatzita egongo dira. Diruz lagundutako jarduera sustatzeko agerraldi publikoak eta megafoniaz zabaldutako mezuak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, hurrenkera horretan.

Asimismo, se deberán utilizar ambas lenguas oficiales, euskera y castellano, en los carteles, textos y documentos que se elaboren como elementos de publicidad del programa o actividad subvencionada. De igual modo, las intervenciones públicas de promoción ligadas a la actividad objeto de subvención, así como los mensajes que se comuniquen por megafonía, serán bilingües utilizando el euskera y el castellano en ese orden.

HAMAIKA.- Dirulaguntzaren ordainketa

Zenbateko guztia ordainketa bakarrean ordainduko da hitzarmena sinatu ondoren eta ez zaio inolako bermerik exijituko onuradunari.

UNDÉCIMA.- Pago de la subvención

El abono de la cantidad total se efectuará en un único pago tras la firma del Convenio, no exigiéndose para ello garantía alguna al beneficiario.

HAMABI.- Justifikazioa

Onuradunak dirulaguntzaren zertarakoa bete dela justifikatu beharko du 3 hilabeteko epean, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik hasita. Justifikazioa egiteko, pertsona edo erakunde onuradunak proiektuaren justifikazio-kontua aurkeztu beharko du, gastuen ziurtagiriak erantsita. Honako hauek, hain zuzen:

DUODÉCIMA.- Justificación

El beneficiario deberá justificar el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención en el plazo de 3 meses contados desde la finalización de la actividad subvencionada. La justificación se hará mediante la presentación de la Cuenta Justificativa con aportación de justificantes de gastos que incluirá:

1. Hitzarmen honetako baldintzak bete direla frogatzen duen **memoria**, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

2. Programa gauzatzetik **sortutako gastuen eta izandako diru-sarreren balantzea**, Udalak emandako ereduari jarraituta.

1. **Una memoria** de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en el presente Convenio, en la que se indicarán las actividades realizadas y los resultados obtenidos.

2. **El balance de gastos e ingresos** correspondiente a la ejecución del Programa, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento.

3. Programa gauzatzeko epearen barruan egindako **gastuen jatorrizko ziurtagiriak.** Erakundeak originalak itzultzeko eskatuko badu, kopiak ere aurkeztu beharko ditu. Mota biko gastuak bereizten dira horretarako:

- Programarekin zuzenean lotutako gastuak, oso-osorik justifikatu beharko dira, fakturen eta balio bereko gainerako ziurtagirien bidez. Justifikatzen den programari buruzkoak bakarrik izango dira dokumentuok eta datu hauek jasoko dituzte:

  - ✓ Pertsona onuradunaren identifikazioa
  - ✓ Gastua zertan egin den. Zuzeneko zerikusia izan beharko du programa gauzatzearekin
  - ✓ Legez eska daitezkeen gainerako datuak

  Salbuespen modura, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsonek egiten badituzte jarduerak, adostutako prestazioaren zenbatekoaren hartze-agiria agertzen duten dokumentuak aurkeztea onar daiteke, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaportea). Zenbatekoa 200€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen bankuko kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

  Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak (sortutakoa guztira) eta Gizarte Segurantzako kotizazioak (LIZ, langileen izenen zerrenda) aurkeztu behar dira.

3. **La documentación original justificativa que acredite los gastos.** En el caso que la entidad solicite devolución de los originales deberá presentar además copia de los mismos-efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose, a estos efectos:

- Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documento de valor probatorio equivalente. Estos documentos se circunscribirán únicamente al programa que justifican, y deberán incluir, en todo caso, los siguientes datos:
  - ✓ La identificación de la persona beneficiaria.
  - ✓ La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.
  - ✓ Demás datos legalmente exigibles.

  Con carácter excepcional, en supuestos de actividades realizadas ocasionalmente por personas que no ostentan la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de los documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte de la persona) de la persona perceptora. Cuando su importe sea superior a 200€, además, se deberá acompañar el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

  Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas (total devengado) y cotizaciones a la seguridad social (RNT, relación nominal de trabajadores).

- Zeharkako kostuak: beren-beregi eskatu ezean, ez da ezelako ziurtagiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, pertsona edo erakunde onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrita; betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa.

  Kostu horiek justifikatze aldera, zeharkako kostuetan gehienez ere onartuko den ehunekoa dirulaguntza emateko oinarri hartu den aurrekontuan erakundeak adierazi duena izango da, eta benetan justifikatu diren zuzeneko gastuei aplikatuko zaio.

4. Diruz lagundu daitekeen kontzeptuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa (15.000 euro, BEZ kanpo, zerbitzu eta hornidurarako) baino handiagoa denean eskatu behar diren hiru aurrekontuak, ez bada eskaintzarik merkeena aukeratzen, memoria batean justifikatu beharko da beren-beregi.

- Los costes indirectos, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes deberán imputarse por la entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, se pueda imputar una cantidad superior al 10 por ciento de los costes del programa subvencionado.

  A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados.

4. Los tres presupuestos que deben haberse solicitado cuando el importe de un concepto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público para el contrato menor (15.000€ IVA excluido en el supuesto de suministros y servicios), en el supuesto que la elección no recaiga en la propuesta económicamente más ventajosa se deberá justificar tal elección expresamente en una memoria.

HAMAHIRU.- Arloari datuak kontsultatzeko baimena ematea

Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioak baimena ematen dio Euskarako, Herritarren Arreta Eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailari haren izenean honakoak eskatzeko, hala nahi izanez gero: Foru Ogasuneko zerga-ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria eta Gizarte

DECIMOTERCERA.- Autorización al área para la consulta de datos

Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea Federazioa autoriza al Área de Euskera, Atención y Participación Ciudadana, Agenda 2030 e Internacional a solicitar en su nombre, en el caso de que así interese: Certificación acreditativa de estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales, a la Hacienda Foral y certificación

Segurantzako ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, edo Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari, erakundeak menpeko langilerik ez duela egiaztatzen dion ziurtagiria.

acreditativa de estar al corriente del pago de las obligaciones de Seguridad Social, o de no tener la entidad trabajadores a su cargo, a la Tesorería General de la Seguridad Social.

HAMALAU.- Arau-hauste penala

DECIMOCUARTA. - Infracción penal

Zigor Kodearen 308. artikuluaren arabera, hau da arau-hauste penala:

Constituye infracción penal, según el artículo 308 del Código Penal:

1. Administrazio publikoetatik 10.000 euro baino gehiagoko dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzea, haiek lortzeko betekizunak faltsutuz edo haiek lortzea eragotziko luketen baldintzak ezkutatuz.

1. La obtención de subvenciones o ayudas de las Administraciones Públicas por importe superior a 10.000€ falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubiesen impedido.

2. Administrazio publikoen funtsekin osorik edo zati batean ordaindutako jarduera bat egitean, funts horietatik 10.000 euro baino gehiago erabiltzea dirulaguntza edo laguntza eman zen helburuak ez diren beste batzuetarako.

2. En el desarrollo de una actividad sufragada total o parcialmente con fondos de las Administraciones Públicas, la aplicación de los mismos, en una cantidad superior a 10.000€, a fines distintos de aquéllos para los que la subvención o ayuda fue concedida.

Alde biak ados daude hemen jasotako guztiarekin eta hori horrela dela agertzeko hitzarmen honen ale bi sinatu dituzte Bilbon, 2026ko urria

Las partes prestan su conformidad a todo lo aquí recogido, y en prueba de ello firman por duplicado el presente Convenio en Bilbao octubre de 2026.

EUSKARAKO, HERRITARREN ARRETA ETA PARTAIDETZAKO, 2030 AGENDAKO ETA NAZIOARTEKO GAIETAKO SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

KUKULAISI EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA FEDERAZIOA

Sinatzailea/Firmado:
Eider Inuntziaga Serna an.

Sinatzailea/Firmado:
Naiara Martín Gomez an.

1. ERANSKINA

2. ERANSKINA

3. ERANSKINA